

EUSKAL SARIKETEĀ AMAR URTETIK AMAIRU URTERAKO
NESKA-MUTIL BIZKAITARRENTZAT

1. Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko neska-mitillentzat 1960'gko. maia-tzean egiteko, adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amairu urtera izan bear dabez. Zimentarriak oneik dira:

2. Sariak izango dira: Leenengoa milla pesetakoa, eta amazortzi sari bosteun pesetako. Euskaldun aberatsak emoten badabe orretarako dirua eun eta berrogeta amar pesetako sariak iminiko dira gaiñerakoentzat. Sariez gaiñera aipamen bereziak egin aal izango jakiez nabarmenduten diraneri, eta baita neska-mutilak gertetan dabezaneri be, diploma dotore batzuk emonik.

3. Sariketa esamiña bat euskeraz egiñik erabakiko da, eta gaiak izango dira: 1. Kristiñau dotriña. 2. Bizkaiko erri-bertso-sorta bat Euskaltzaindiak argitaratu dauena. Buruz ikasi bear izango dabe edozein bertso-soñu erabillirik. 3. Gura daben ipuin bat idatzi bear izango dabe buruz. Orretarako, "Abarrak", Euskaltzaindiak argitaratu eban ipuin-sorta E. Bustunza-rena, iminten da eredutzat, eta ango ipuin bat edo beste edozein tokitan ikasirikako bat aukeratu lei. 4. Bakotxa bizi dan erriaren gaiñean zerbait idatzi. Erakusbide modura gai batzuk emoten dira, libertade osoagaz erabilli aal izango direanak, bai zuzenean edo bai zearka, eta guztiak edo batzuk bakarrik: a) Elexea, b) Erria, d) Baserriak, e) Frabrikak, d) Dendak eta merkataritzea, g) Arrantzua, h) Labrantzea, i) Gentea eta oiturak, j) Bidaje batean sentidu doguna, eta abar. 5. Domingo Agirre'ren "Kresala" nobelea iminten da liburu irakurgarria legez, batez be idazteko oiturea artzeko, baiña ezta ezer itanduko bere gaiñean.

4. Batzarra Euskaltzaindiak izentauko dau egingo dan eguna adierazoten danean.

5.- Izenak 1960'ko Aprillaren 15'arte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Ribera, 6-Bilbao). Izen-deitura, bizileku eta jaioteguna adierazobear dira.